

# BEZEROAREKIKO HARREMANA

Sustrai enpresan argi dugu bezero eta gure arteko **harremana zuzena** izatea beharrezkoa dela konfiantza eta pertsonalizazioa bermatzeko. Izan ere, bezeroekiko harremana gure zeregin garrantzitsuenetakoa da, haien egoera hobetzeko. Hori dela eta, gure kanal gehienak zuzenekoak izatea nahiko genuke, gure bezeroekiko harremana estutzeko, bezeroak hobeto ezagutzeko eta behar duten laguntza bermatzeko.



Gure enpresan, **harreman pertsonala** izango dugu zerbitzu ia guztietan. Gure egoitza bertan, Deuston kokatuta dagoen lokalean, terapiak egingo ditugunez, hor aurrez aurreko harremana izango dugu. Telekomunikazioen bidez terapiak egin ahal direlaren jakitun egon arren, uste dugu terapiak hobeto joango direla presentzialak badira. Horregatik, gure terapia mota ezberdin guztiak modu presentzian egitea aukeratu dugu. IMQ eta Osakidetzaren egoitzetan ere gure terapiak eskainiz gero, zuzeneko modu batean egingo dugu, gure bezeroekin **harreman estua** izateko eta haien izaerak hobeto ezagutzeko.

*Gu-geu*-ak gure lokalean egin arren, bezero guztiek haien *Gu-Geu*-a izateko aukera bermatu nahi dugu, horregatik, gure web orrialdearen bidez eskatu dezakete edota gure enpresari deituz eta hortik eskaera eginez.

Jarraitzeko, **harreman automatizatua** ere izango dugu. Sortutako webgunearen bitartez, bezeroekin **harreman zuzena** izateko aukera izango dugu, haien nahiak eta zalantzak argitzeko. Modu honetan, edonork gure webgunearen bitartez gurekin harremanetan jartzeko aukera izango du. Era berean, telefono finkoa izango dugu lokalean (+34 637234202)



Sarrera Terapiak Inteerak Gu-geu Iritziak

**GU-GEU**

Oroitzapenak gure nortasunarek atal garrantzitsua da. Hori dela eta, gordetzea ezinbestekoa da.

HAS ZAITEZ



**Bezeroak mantentzeko**, bono bat eskeiniko dugu, lau terapia saio eginez gero, terapia saio bakoitza bost euro merkeagoa izaten. Gainera, **bezero berriak erakartzeko**, gure webguneaz gain, hainbat hormairudi ezberdin erabiliko ditugu, guztien eskura egon dadin, gure zerbitzuen informazioa zabaltzeko, baita gure esku egongo diren hitzaldiak hainbat leku ezberdinetan aurkeztuz, adin nagusiko lekuetan adibidez.